

Nafarroako Kultura Mezenasgoaren Foru Legearen bidez, erakundeek eta artistek MECNA bereizgarria lor dezakezue. Ziurtagiri hori Nafarroako Gobernuak ematen die gizarte-intereskotzat jotzen diren kultura-ekimenei eta -proiektuei. Gainera, ekimen eta proiektu horiei laguntza ematen dieten enpresek eta partikularrek zerga-onura handiak izango dituzte.

Nafarroako Gobernuak MECNA zigiluarekin aitortzen du kultura sustatzeko eta finantzatzeko herritarrek, enpresariak eta gizarteak adierazitako konpromisoa.

INFORMAZIOA

848 42 46 00

culturanavarra.es/eu/mezenasgoa

**Egin kultura,
Egin zaitetz MECNA**

KULTURA
zure baitan dago

MECNA izan nahi duzu?

Nork eska dezakeen MECNA bereizgarria

- Zerga-egoitza Nafarroan duten elkarteek, fundazioek eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk.
- Zerga-egoitza Nafarroan duten eta 200.000 euroko baino gutxiagoko negozio-bolumena duten artistek.
- Eliza katolikoak eta Estatuarekin lankidetzatza-hitzarmenen bat izenpetuta duten beste erakunde erlijioso batzuk.
- Beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian dauden Nafarroako etxeek edo egoitzek, baita erakunde horien federazioek ere.

Zein proiektuk lor dezaketen MECNA bereizgarria

Bereizgarria lor dezakete: arte plastikoekin, zinematografiarekin, ikus-entzunezkoekin, arte eszenikoekin, musikarekin eta literaturarekin zerikusia duten jarduerak eta proiektuak, baita kultura-ikerketekin eta ondarearekin, Nafarroako folkloreakin eta euskararekin lotutako jarduerekin eta beste edozein jarduera artistikoekin eta kulturalarekin zerikusia dutenek ere.

Noiz eta nola eskatzen da MECNA?

Urteko eskaera-aldiak

**URRIAREN
1etik 31ra**

**MAIATZAREN
1etik 31ra**

1/ Eskariaren eta azalpen-txostenaren aurkezpena

- Inprimakiak: culturana Navarra.es/eu/mezenasgoa
- Aurkezteko tokia: Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuaren Erregistroa. Nabarrerria kalea, 39. Iruña

2/ Ebazpena eta argitalpena

Nafarroako Gobernuak ematen du edo ukatzen du MECNA aitortpena, Nafarroako Kultura Kontseiluaren proposamenaren arabera, eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean.

MECNA aitortutako ekimenak culturana Navarra.es/eu/mezenasgoa webgunean argitaratzen dira, publikoki kontsultatzeko

MECNA konpromisoak

MECNA aitortzak obligazio hauek dakartza berekin:

- MECNA ekimenak gauzatzeko bideratzea mezenasgo-ekarpenak. Ekimen horiek, halaber, azaldutako baldintzen arabera gauzatu beharko dira.
- Ekarpenen ziurtagiriak jaulkitzea mezenasei eta Nafarroako Ogasunari jakinaraztea (182 eredu).
- Azken txosten baten bidez proiektua gauzatu izana ziurtatzea.

MECNA gisa hartzeko beste bide batzuk

- **Tokiko erakundeek eta unibertsitate publikoek** bultzatutako jarduerak eta proiektuak: proiektua hasi baino bi hilabete lehenago Nafarroako Gobernuari jakinarazita.
- Kultura arloan eskumena duen departamentuak diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak: automatikoki hartuko dira MECNA gisa.

